3.- Foru Aldundiak Ganberako Mahaiari eska diezaioke, arrazoituz, irakurraldi bakarraren bidea erabiltzeko foru arau proiektuak izapidetzeko.Eskaera hori artikulu honetako 1. atalaren arabera izapidetuko da.

4.- Foru arau proposamenen kasuan, proposatzen duen taldeak edo taldeek irakurketa bakarrez izapidetzeko eska dezakete modu arrazoituan. Eskaera hori artikulu honetako 1. atalaren arabera izapidetuko da.

3. atala.- Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketaren Foru Arauaren 6.2.b) artikuluak aipatzen dituen Foru Aldundiaren Erabakiak berresteko prozedura.

145. artikulua

1.- Arabako Foru Aldundiak eskumenak lagatzeari edo gain hartzeri buruz hartzen dituen erabakiei dagokienez, Arabako Biltzar Nagusietako Osoko Bilkuraren berrespena beharko dute.

2.- Biltzar Nagusietako Osoko Bilkurak berretsi beharko ditu Arabako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzarekin, Estatuarekin, beste lurralde historikoekin, autonomia erkidegoekin edo probintziekin izenpetu behar dituen hitzarmenak, betiere horiek sinatu baino lehen.

Osoko Bilkurak berretsiko ditu, osoko eztabaida burutu ondoren; eztabaida hori lehendakariak, Mahaiarekin ados, emango dituen arauen arabera burutuko da.

3.- Foru Aldundiak uste badu hitzarmen bat premiaz izapidetu behar duela, Biltzar Nagusietara bidaliko du, izenpetzeko premia justifikatuta:

a) Mahaiak biltzarkide taldeei bidaliko die hitzarmena eta horiek zazpi eguneko epea izango dute, eman diotenetik, esateko ez daudela ados aldez aurretik Biltzar Nagusiek berretsi gabe hitzarmen hori sinatzearekin.

b) Biltzarkide talderik ez badu aurkakotasunik adierazten finkatutako epean, sinatzeko baimena ematen dutela ulertuko da eta Biltzarretako lehendakariak hori esango dio Foru Aldundiari, hitzarmena sinatzeari ekin diezaion; gainera, hurrengo Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko da, Osoko Bilkurak berretsi dezan.

c) Aldez aurretik sinatzearen aurkako iritzirik balego, hitzarmena, Mahaiak finkatzen duen eskumeneko batzordearen gai-zerrendan sartuko da. Batzordeak, araugintzako ahalmen osoarekin, hitzarmena berresteari edo ez berresteari ekingo dio osoko eztabaida burutu ondoren. Osoko eztabaida hori lehendakariak, Mahaiaren ados, ematen dituen arauekin bat etorriz burutuko dute.

4.- Eskumenak lagatzeari edo gain hartzeari buruzko erabakiak berretsiz gero edo hitzarmenak berretsiz gero, horiek foru arau bihurtuko dira eta Foru Arau moduan emango dira argitara ALHAOn eta Arabako Biltzar Nagusien Aldizkari Ofizialean.

4. atala.- Ekimen legegilea Eusko Legebiltzarraren aurrean.

146. artikulua

1.- Autonomia Estatuaren 27. artikuluak Eusko Legebiltzarreko Mahaiari bidaltzeko lege proposamenak egiteko aukera jaso du. Lege proposamen horiek, Araudi honek araugintza-prozedura arrunterako aurreikusitakoaren arabera izapidetuko dira.

2.- Aurreko artikuluan aipatutako lege proposamenak onesteko, osoko bozketa egin behar da eta gehiengo osoak onetsi beharko ditu.

3.- Aukeratzeko zein biltzarkidek aldeztu beharko dituzten lege proposamenak Eusko Legebiltzarrean, biltzarkide taldeek euren hautagaiak proposatuko dituzte eta biltzarkide bakoitzak izen bat idatziko du dagokion txartelean. Osoko Bilkurak aldez aurretik finkatuko du zenbat biltzarkide joango diren, baina gehienez hiru izango dira, boto gehien lortzen dituztenak. Aukeratzeko orduan garrantzitsuak izan daitezkeen berdinketak gertatuz gero, beste bozketa batzuen bidez ebatziko dira.

5. atala.- Zergaren gaineko Foru Araua Orokorraren 8. artikuluko Zerga Premiazko Araugintzako Foru Dekretuak izapidetzea.

147. artikulua

1.- Foru Aldundiak, Zergaren inguruko Foru Arau Orokorraren 8. artikuluaren arabera dituen eskumenak erabiliz, Zerga Premiazko

2.- Una vez adoptado el mencionado acuerdo, se procederá a un debate sujeto a las disposiciones establecidas para los de totalidad, sometiéndose seguidamente el conjunto del proyecto a una sola votación.

3.- La Diputación Foral podrá solicitar motivadamente a la Mesa de la Cámara el uso del procedimiento de lectura única para la tramitación de proyectos de norma foral. Esta solicitud se tramitará conforme se establece en el apartado 1 del presente artículo.

4.- En el caso de las proposiciones de norma foral, el grupo o grupos proponentes podrán solicitar motivadamente su tramitación por lectura única. Esta solicitud se tramitará conforme se establece en el apartado 1 del presente artículo.

Sección 3ª.- Del procedimiento de ratificación de los Acuerdos de la Diputación Foral a que hace referencia el artículo 6.2 b) de la Norma Foral de Organización Institucional del Territorio Histórico de Álava.

Artículo 145

1.- Los acuerdos adoptados por la Diputación Foral de Álava en cuanto a cesión o asunción de competencias, deberán ser sometidos a la ratificación del Pleno de las Juntas Generales de Álava.

2.- Los convenios que la Diputación Foral de Álava haya de suscribir con el Gobierno Vasco o el del Estado, con otros territorios históricos, comunidades autónomas o provincias se someterán a la ratificación del Pleno de las Juntas Generales antes de su firma.

La ratificación tendrá lugar en el Pleno, previo debate a la totalidad, que se celebrará conforme a las normas que dicte el Presidente de acuerdo con la Mesa.

3.- En el caso de que la Diputación Foral considere urgente la firma del convenio, lo enviará a las Juntas Generales con la justificación de la urgencia de su firma:

a) La Mesa remitirá el convenio a los grupos junteros quienes dispondrán de un plazo de siete días, contados a partir del traslado para manifestar su oposición motivada a la firma sin la ratificación previa de las Juntas Generales.

b) Si no hubiera objeción por parte de ningún grupo juntero en el plazo establecido, se entenderá autorizada la firma y el Presidente de la Cámara lo comunicará así a la Diputación Foral para que pueda proceder a la firma del convenio, que se incluirá en el orden del día del siguiente Pleno para su ratificación.

c) De producirse manifestación en contra a la firma previa, el convenio se incluirá en el orden del día de la comisión competente que determine la Mesa, quien con capacidad normativa plena, procederá a la ratificación o no del convenio previo debate de totalidad que se celebrará conforme a las normas que dicte el Presidente de acuerdo con la Mesa.

4.- La ratificación de los acuerdos en cuanto a cesión o asunción de competencias así como la de los convenios adoptará la forma de norma foral y como tal se publicará en el BOTHA y el Boletín Oficial de las Juntas Generales de Álava.

Sección 4ª.- De la iniciativa legislativa ante el Parlamento Vasco.

Artículo 146

1.- La elaboración de proposiciones de ley para su remisión a la Mesa del Parlamento Vasco, a la que se refiere el artículo 27 del Estatuto de Autonomía, se tramitará de acuerdo con lo previsto en este Reglamento para el procedimiento normativo común.

2.- Las proposiciones de ley a que se refiere el número anterior habrán de ser aprobadas, en votación de totalidad, por mayoría absoluta.

3.- Para la designación por el pleno de los procuradores que habrán de defender las proposiciones de ley en el Parlamento Vasco, los grupos junteros propondrán sus candidatos y cada procurador escribirá un nombre en la papeleta correspondiente, resultando elegidos hasta un máximo de tres, en el número que previamente haya fijado el Pleno, los procuradores que obtuvieran mayor votación. Los posibles empates con relevancia a efectos de la designación se resolverán mediante sucesivas votaciones.

Sección 5ª.- De la tramitación de los Decretos Forales Normativos de Urgencia Fiscal del artículo 8 de la Norma Foral General Tributaria.

Artículo 147

1.- Recibido un Decreto Foral Normativo de Urgencia Fiscal, adoptado por la Diputación Foral en uso de las atribuciones del

Araugintzako Foru Dekretua egin eta Biltzarretara bidatzen duenean, Biltzarrek, hori jaso ondoren, eztabaidatuko dute eta Osoko Bilkuran, Ogasunean eskumena duen batzordean edo Batzorde Iraunkorrean (Biltzar Nagusietako Mahaiak erabakitzen duenaren arabera) baliozkotzea edo indargabetzea bozkatuko dute Dekretu hori Diputatuen Kontseiluan onetsi eta hogeita hamar eguneko epea amaitu baino lehen. Dena dela, Zerga Premiazko Araugintzako Foru Dekretua gaizerrendan sar daiteke, eztabaidatzeko eta onesteko, ALHAOn argitaratu bezain pronto.

2.- Foru Aldundiaren kide batek azalduko du zergatik atera behar izan duten hori eta ondoren eztabaidatuko dute osoko eztabaidetarako xedatutakoarekin bat etorriz.

3.- Eztabaida amaituta, bozkatuko dute; baiezko botoak, balioztatzearen aldekoak direla eta ezezkoak indargabetzearen aldekoak direla ulertuko da.

4.- Zerga Premiazko Araugintzako Foru Dekretua balioztatuta, lehendakariak biltzarkide taldeei galdetuko die ea norbaitek foru araua proiektu moduan izapidetu dezaten nahi duen. Baietz esaten badu norbaitek, Osoko Bilkurak edo balioztatu duen batzordeak hartuko du erabakia. Foru araua proiektu moduan izapidetzea erabakiz gero, premiaz izapidetuko da eta ez da osoko zuzenketarik onartuko.

5.- Aurreko tramiteak batzordean egiten badira, egin beharreko bozketak, boto haztatuz egingo dira.

6.- Zerga Premiazko Araugintza Dekretu bat balioztatu edo indargabetuz gero, ALHAOn argitaratuko da eta, balioztatu bada, foru arau bihurtuko da.

III. KAPITULUA.– Premiazko prozedura

148. artikulua

Foru Aldundiak, bi biltzarkide taldek edo Biltzarretako kideen bostenek eskatuta, Biltzar Nagusietako Mahaiak erabaki dezake foru arau proposamen edo proiektu bat premiazko prozeduraz izapidetu behar dela.

149. artikulua

1.- Aurreko erabakia hartuta, Mahaiak epe berriak finkatuko ditu Araudiak jasotakoen aldean.

2.- Salbuespenak alde batera utzita, epe horiek Araudian aipatutakoen erdikoak izango dira.

IV. KAPITULUA.- Aurrekontuen Foru Arau Proiektua

150. artikulua

1.- Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrak aztertzeko eta onesteko, araugintzarako prozedura arruntari jarraituko zaio, baina artikulu honetan adierazten diren salbuespenekin.

2.- Aurrekontu orokorren Foru Arau proiektuak Biltzar Nagusien gainerako lanen aldean lehentasuna dauka izapidetzerakoan eta Mahaiak gainerako organoen lan-egutegia egoki dezake adierazitako lehentasun horren arabera.

3.- Aurrekontua eztabaidatzerakoan, artikuluen testua eta gastuen eta sarreren egoera eztabaidatuko da, nahiz eta horrekin batera doazen beste eranskin edo agiri batzuk ere azter daitezkeen.

4.- Batzordeko lehendakariak eta Biltzar Nagusietako lehendakariak eztabaidak eta egoerak antolatu ditzakete aurrekontu proiektuaren egiturari ondoen datorkion bezala.

151. artikulua

1.- Biltzar Nagusietako Mahaiak arau proiektua onartu eta kalifikatuko du eta biltzarkide taldeei bidaliko die, biltzarkide taldeek azter dezaten gehienez hamar eguneko epean. Halaber, proiektua izapidetzeko egutegia onetsiko du eta horren iragarkia argitaratzeko aginduko du, zuzenketak aurkez ditzaten.

2.- Mahaiak, Aurrekontuen Foru Arau proiektua izapidetzeko onartutakoan, Arabako Biltzar Nagusien aldizkarian eta web orrian iragarki bat jartzea erabakiko du eta, horren bidez, aipatutako proiektua herritarren esku jarriko du; gainera, 10 eguneko epea irekiko du eta epe horretan herritarrek Idazkaritza Nagusian alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, banaka edo elkarte zein antolakunderen bidez.

artículo 8 de la Norma Foral General Tributaria, será sometido a debate y votación sobre la convalidación o derogación ante el Pleno, la comisión competente en materia de Hacienda o la Comisión Permanente, según disponga la Mesa de las Juntas Generales, antes de transcurrir los treinta días siguientes a su aprobación en el Consejo de Diputados. En todo caso, la inserción en el orden del día del Decreto Foral Normativo de Urgencia Fiscal, para su debate y votación, podrá hacerse tan pronto hubiese sido objeto de publicación en el BOTHA.

2.- Un miembro de la Diputación Foral expondrá las razones que han obligado a su promulgación y el debate subsiguiente se realizará conforme a lo establecido para los de totalidad.

3.- Concluido el debate, se procederá a la votación, en la que los votos afirmativos se entenderán favorables a la convalidación y los negativos favorables a la derogación.

4.- Convalidado el Decreto Foral Normativo de Urgencia Fiscal, el Presidente preguntará si algún grupo juntero desea que se tramite como proyecto de norma foral. En caso afirmativo, la solicitud será sometida a la decisión del Pleno o de la comisión que lo haya convalidado. Si se acordara la tramitación como proyecto de norma foral, se efectuara por el procedimiento de urgencia, no admitiéndose enmiendas a la totalidad.

5.- Si los trámites anteriores se realizaran en comisión, las votaciones que procedan en ésta se efectuaran por el sistema de voto ponderado.

6.- El Acuerdo de convalidación o derogación de un Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se publicará en el BOTHA, y en el primer caso adoptará la forma de norma foral.

CAPÍTULO III.- Del procedimiento de urgencia

Artículo 148

A petición de la Diputación Foral, de dos grupos junteros o de un quinto de los miembros de la Cámara, la Mesa de las Juntas Generales podrá acordar que una proposición o proyecto de norma foral, se tramite por el procedimiento de urgencia.

Artículo 149

1.- Adoptado el acuerdo anterior, la Mesa determinará los términos de los nuevos plazos en relación con los establecidos en el Reglamento.

2.- Salvo casos excepcionales, los plazos tendrán una duración de la mitad de los señalados.

CAPÍTULO IV.- Del Proyecto de Norma Foral de Presupuestos

Artículo 150

1.- En el estudio y aprobación de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico se aplicará el procedimiento normativo común, salvo lo dispuesto en el presente capítulo.

2.- El Proyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales gozará de preferencia en la tramitación con respecto a los demás trabajos de la Cámara, pudiendo la Mesa adecuar el calendario de trabajo de los demás órganos a la preferencia señalada.

3.- El debate de Presupuestos se referirá al texto articulado y al estado de autorización de gastos e ingresos, sin perjuicio del estudio de otros documentos o anexos que a él se acompañen.

4.- La presidencia de la comisión y la de las Juntas Generales podrán ordenar los debates y situaciones en la forma que más se acomode a la estructura del proyecto de presupuestos.

Artículo 151

1.- La Mesa de las Juntas Generales admitirá y calificará el proyecto de norma y lo remitirá a los grupos junteros para que procedan a su análisis durante un plazo no superior a diez días. Asimismo aprobará el calendario de tramitación del proyecto y ordenará la publicación de anuncio a efectos de enmiendas.

2.- La Mesa, al admitir a trámite el proyecto de Norma Foral de Presupuestos, acordará la inserción de un anuncio en el boletín y en la web de las Juntas Generales de Álava, poniendo dicho proyecto a disposición de la ciudadanía y abriendo un plazo de 10 días, en el que podrán presentarse en la Secretaría General alegaciones por parte de la ciudadanía, de forma individual, o a través de asocia-

Idazkaritza Nagusiak berehala aurkeztutako alegazioak biltzarkide taldeei bidaliko die eta Mahaiari horiek jaso eta bidali dituela adieraziko dio. Halaber, Idazkaritza Nagusiak alegazioak aurkeztutako eredu-formulario bat finka dezake. Eredu hori herritarrek hartu ahal izango dute Biltzar Nagusien administrazio-bulegoetan edo erakundearen web orrian.

3.- Aurreko atalean aipatutako hamar eguneko epe horretan, Foru Aldundia osatzen duten sailek Aurrekontuen inguruan eskumena duen batzordean agerraldia burutuko dute eta euren arlo edo atalen inguruko aurkezpen ofiziala egingo dute; gainera, partiden izaera eta garrantzia dela-eta eskatzen dizkieten informazioak eta argipenak eman beharko dituzte eta aurkezten dizkieten zalantzak argitu beharko dituzte. Hori dela-eta, ez dira izapidetzeko onartuko ondoko arrazoian oinarritutako zuzenketak: aurrekontu-partida horiek ez dituztela ondo azaldu.

4.- Aurreko atalean aipatutako agerraldiak burutu eta hurrengo egunean zuzenketetarako epea hasiko da. Biltzarkide taldeen bidez Aurrekontuen Foru Arau proiektuari osoko zuzenketa egin dakioke, baita artikuluen testuaren zuzenketa, sekzio oso batena edo aurrekontuen programa, kapitulu, artikulu, kontzeptu, nahiz partidena eta memoriena ere.

5.- Mahaiak behin betiko kalifikazioa egiteko ahalmenak ditu, baina hauek joko dira osoko zuzenketatzat:

a) Foru arau proiektuaren egokitasunari, printzipioei eta espirituari buruz ari diren eta proiektu osoa edo proiektuaren egitura osatzen duten sekzio osoak Foru Aldundiari itzultzeko proposatzen dutenak, baita departamentu bati dagokion aurrekontua itzultzea edo aurrekontua kentzea proposatzen dutenak ere.

b) Gastu osoaren edo sarrera osoaren kopuruetan aldaketa positiboa edo negatiboa proposatzen dutenak.

6.- Aurrekontuen proiektuari zuzenketa partzialak egin dakizkioke: sekzio bakoitzari buruz, programei buruz, edo barruko kapitulu, artikulu, kontzeptu, partida eta memoriari buruz. Betiere, zuzenketaren testuan adierazi behar da zer programari eta sailari dagokion zuzenketa.

7.- Kontzeptu batzuen kreditua handitzea badakar zuzenketak, izapidetzeko onartua izateko, baldintza orokorrak betetzeaz gain, aurrekontuko beste kontzeptu batean kopuru bereko jaitsiera proposatu beharra dauka.

Zuzenketa proiektuko artikuluen testuari buruzkoa izan eta automatikoki aurrekontu-kreditu bat handitzea badakar, aurreko paragrafoko baldintzak bete behar ditu baita ere.

8.- Aurrekontuen proiektuari eginiko zuzenketak sarrerak gutxitzea badakar, Foru Aldundiaren adostasuna behar du izapidetzeko. Sarrera gutxitzen duela ulertuko da zuzenketa proiektuko artikuluen testuari buruzkoa izan eta horko zerga-xedapenak aldatzen dituenean. Hau da, zerga-xedapenok zerga-zorraren kopurua zehazten duten elementuei buruzkoak izanik, zorraren kopurua txikitzen duenean zuzenketak. Arabako Foru Aldundiak Biltzar Nagusietako Mahaiari zer iritzi duen jakinaraziko dio lau egunen barruan, Mahaiak halako zuzenketen berri ematen dionetik.

152. artikulua

1.- Zuzenketak kalifikatu eta izapidetzeko onartu ondoren, Biltzar Nagusien Osoko Bilkurak osoko zuzenketak, aurreko artikuluko 5. puntuan aipatutakoak, eztabaidatu eta ebatziko ditu. Osoko Bilkura horrek sarrera eta gastu osoen behin betiko kopuruak finkatuko ditu.

2.- Jarraian, aurrekontuetan eskuduna den batzordeak, araugintzako ahalmen osoarekin, gainerako zuzenketak eztabaidatuko eta bozkatuko ditu. Batzordean boto haztatuz bozkatuko da.

3.- Batzordeak hartu duen onespen erabakia, hurrengo Osoko Bilkurara eraman beharko da, bilkurak berretsi dezan.

153. artikulua

Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuak onartu direnean, Foru Aldundiak aurrekontu-ekitaldi bereko gastu publikoa handitzea edo sarrerak txikitzea dakarten arau proiektuak aurkez ditzake.

ciones u organizaciones. La Secretaría General trasladará de forma inmediata las alegaciones presentadas a los grupos junteros y dará cuenta a la Mesa de su recepción y envío. Asimismo, la Secretaría General podrá establecer un modelo-formulario de alegación, que estará a disposición de los ciudadanos en las dependencias administrativas de las Juntas Generales, así como en la web institucional.

3.- Durante el plazo de diez días señalado en el apartado primero se procederá a la comparecencia ante la comisión competente en materia de Presupuestos de los distintos departamentos en que se estructura la Diputación Foral para que procedan a realizar la presentación oficial de sus respectivas áreas y secciones, así como para responder a cuantas solicitudes de información y aclaración de dudas les sean presentadas sobre la naturaleza y alcance de las diferentes partidas. En congruencia con este procedimiento, no se admitirán a trámite las enmiendas cuya motivación sea la falta de explicación de las partidas presupuestarias.

4.- Al día siguiente de sustanciarse las comparencias señaladas en el apartado anterior se abrirá el plazo de enmiendas. El proyecto de Norma Foral de Presupuestos podrá ser enmendado en su totalidad, en el texto articulado, en una sección completa o en sus programas, capítulos, artículos, conceptos y partidas y memoria, a través de los grupos junteros.

5.- Sin perjuicio de las competencias de la Mesa para su definitiva calificación, serán consideradas enmiendas a la totalidad:

a) Las que versando sobre la oportunidad, los principios o el espíritu del proyecto de norma foral, propongan la devolución a la Diputación Foral del mismo o de secciones presupuestarias completas en que aquel se estructura, así como aquellas otras que pretendan la devolución del presupuesto correspondiente a un departamento o su supresión.

b) Las que propongan una variación, positiva o negativa, de cantidades del gasto o del ingreso total.

6.- Las enmiendas parciales que se formulen al proyecto de presupuestos podrán referirse tanto a cada una de las secciones, como a los programas y a sus capítulos, artículos, conceptos, partidas y memoria. En cualquier caso habrá de señalarse el programa y departamento a que afecten el texto de la enmienda.

7.- Las enmiendas que supongan incrementos de crédito en algunos conceptos, únicamente podrán ser admitidas a trámite si, además de cumplir los requisitos generales, en la propia enmienda se propone una baja de igual cuantía en otro concepto presupuestario.

A tal efecto, se considerará que implican también incremento de crédito aquellas enmiendas que, dirigiéndose al texto articulado del proyecto, hayan de tener una incidencia automática de esta índole en un crédito presupuestario.

8.- Las enmiendas al proyecto de presupuestos que supongan una minoración de ingresos requerirán la conformidad de la Diputación Foral para su tramitación. Se considerarán enmiendas que suponen minoración de ingresos las que procedan a efectuar modificaciones de las disposiciones tributarias, contenidas en el texto articulado del proyecto, relativas a los elementos determinantes de la cuantía de la deuda tributaria y que impliquen una disminución de ésta. La Diputación Foral comunicará su parecer a la Mesa de las Juntas Generales en un plazo no superior a cuatro días contados a partir del momento en que la Mesa le dé traslado de este tipo de enmiendas.

Artículo 152

1.- Calificadas y admitidas a trámite las enmiendas, el Pleno de las Juntas Generales debatirá y resolverá sobre las de totalidad, a las que se refiere el apartado 5 del artículo anterior. En esta sesión del Pleno quedarán fijados los importes definitivos de ingresos y gastos totales.

2.- A continuación, la comisión competente en materia de presupuestos, con capacidad normativa plena debatirá y votará el resto de las enmiendas. En la votación en comisión se aplicará el voto ponderado.

3.- El acuerdo aprobatorio de la comisión habrá de ser sometido a un inmediato Pleno para su refrendo.

Artículo 153

Aprobados los presupuestos del Territorio Histórico de Álava, la Diputación Foral podrá presentar proyectos de norma que impliquen aumento del gasto público o disminución de los ingresos correspondientes al mismo ejercicio presupuestario.

Arau proiektu edo foru arau proposamen bati eginiko zuzenketak gastua handitzea edo sarrerak txikitzea dakarrenean, Araudi honetako 130. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz bideratuko da.

V. KAPITULUA.- Kontu orokorrak onestea

154. artikulua

1.- Urteko kontu orokorra onartzen duen foru arau proiektua jasotzen denean, biltzarkide taldeei bidaliko zaie, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizazio-txostena egin arte itxarongo da.

2.- Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizazio-txostena bidaltzen duenean, biltzarkide taldeei bidaliko zaie, eta kontu orokorraren foru arau proiektua berriro hasiko da bideratzen.

3.- Kontu Orokorraren inguruko foru arau proiektua dagokion osoko bilkuraren gai-zerrendan sartzeko moduan egongo da hamabost eguneko epea igaro denean biltzarkide taldeei Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio-txostena bidali zaienetik.

4.- Proiektua Osoko Bilkuran irakurraldi bakar bidez izapidetuko da.

VI. KAPITULUA.- Araudia aldatzea

155. artikulua

Araudiaren aldaketak, foru araua proposamenetarako xedatutakoaren arabera burutuko dira, Foru Aldundiaren esku-hartzea izan ezik eta, gainera, Biltzar Nagusietako kideen gehiengo osoak onetsi beharko ditu aldaketa horiek.

ZAZPIGARREN TITULUA.- BILTZAR NAGUSIEK FORU ALDUNDIAREN GAINEAN BURUTZEKO DUTEN KONTROLA

I. KAPITULUA.- Diputatu nagusia izendatzea

156. artikulua

1.- Biltzar Nagusiak berritzen diren bakoitzean eta foru arauen arabera diputatu nagusi bat izendatu behar diren gainontzeko kasuetan, Biltzar Nagusietako lehendakariak, Mahaiari eta Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, finkatu egingo du noizko egingo den diputatu nagusia izendatzeko Osoko Bilkuraren deialdia.

2.- Biltzar Nagusietako Mahaiaren aurrean aurkeztuko dira hautagaien inguruko proposamenak, bakoitzaren biltzarkide taldearen bidez, Osoko Bilkurarako finkatu den eguna baino hirurogeita hamabi ordu lehenago beranduenez.

3.- Bilkuraren hasieran, Mahaiko idazkarietako batek proposatu dituzten hautagaien izenak irakurriko ditu. Jarraian, hautagai bakoitzak osatu nahi duten foru gobernurako programaren ildo nagusiak azalduko ditu gehienez hirurogeita hamar minutuz.

4.- Gero, biltzarkide talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egingo du, gehienez hogeita hamar minutuz.

5.- Proposatutako hautagai bakoitzak biltzarkide taldeen ordezkariei erantzun diezaieke, gehienez hogeita hamar minutuz. Biltzarkide taldeen ordezkariek ere erantzuteko aukera izango dute, hamar minutuz. Gero, bilkura etengo da eta Mahaiak esango du noiz ekingo zaion berriro, bozketa egiteko.

157. artikulua

1.- Bilkura berriro hasita, bozketa egingo dute.

2.- Diputatu nagusi izendatzeko, hautagai batek Batzar Nagusietako kide hautetsien botoen gehiengo osoa lortu behar du lehenengo bozketan. Bigarren bozketan gehiengo soila nahikoa da. Ez dira abstentzioak kontuan izango horiek zenbatzeko orduan.

3.- Aurreko atalean aipatutako bigarren bozketan berdinketa gertatuz gero, Biltzar Nagusietarako hauteskundeetan boto gehien lortu zituen alderdi politiko edo koalizioko hautagaia izendatuko dute diputatu nagusi.

4.- Jarraian Biltzar Nagusietako lehendakaria diputatu nagusi aukeratu dutenaren izena esango du eta diputatu nagusi horrek bere

Las enmiendas a un proyecto y a las proposiciones de norma foral que comporten aumento de gasto o disminución de ingresos se tramitarán conforme a lo previsto en el artículo 130 del presente Reglamento.

CAPÍTULO V.- De la aprobación de las cuentas generales

Artículo 154

1.- Recibido el proyecto de norma foral por el que se aprueba la cuenta general del año correspondiente, se remitirá a los grupos junteros y quedará pendiente a la espera de que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas emita el informe de fiscalización correspondiente.

2.- Una vez remitido por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas el informe de fiscalización, éste se enviará a los grupos junteros y se reanudará la tramitación del proyecto de norma foral de la cuenta general de que se trate.

3.- El proyecto de norma foral de aprobación de la cuenta general estará en condiciones de ser incluido en el orden del día de la sesión plenaria correspondiente, una vez hayan transcurrido quince días desde el traslado a los grupos junteros del informe de fiscalización del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

4.- El Proyecto será tramitado por el procedimiento de lectura única ante el Pleno.

CAPÍTULO VI.- De la reforma del Reglamento

Artículo 155

La reforma del Reglamento se tramitará conforme a lo establecido para las proposiciones de norma foral, salvo la intervención de la Diputación Foral, y deberá ser aprobada por la mayoría absoluta de los miembros de las Juntas Generales.

TÍTULO SÉPTIMO.- DEL CONTROL POR LAS JUNTAS GENERALES DE LA DIPUTACIÓN FORAL

CAPÍTULO I.- De la designación de Diputado General

Artículo 156

1.- En cada renovación de las Juntas Generales y en los demás casos en los que según las normas forales hubiera de procederse a la elección de Diputado General, el Presidente de las Juntas Generales, oída la Mesa y la Junta de Portavoces, establecerá la fecha en que será convocado el Pleno para la elección de Diputado General.

2.- Las propuestas de candidatos se presentarán ante la Mesa de las Juntas Generales, a través del respectivo grupo juntero, con una antelación mínima de setenta y dos horas a la hora señalada para la celebración del Pleno.

3.- La sesión comenzará con la lectura por uno de los Secretarios de los candidatos propuestos. A continuación, éstos expondrán, en un tiempo máximo de sesenta minutos, las líneas generales del programa del gobierno que pretendan formar.

4.- Intervendrá después un representante de cada grupo juntero, por treinta minutos como máximo cada uno.

5.- Los candidatos propuestos podrá contestar a los representantes de los grupos durante un tiempo máximo de treinta minutos cada uno. Los representantes de los grupos tendrán derecho a una réplica de diez minutos. A continuación se suspenderá la sesión, fijándose por la Mesa la hora en que haya de reanudarse para proceder a la votación.

Artículo 157

1.- Reanudada la sesión se procederá a la votación.

2.- Para la designación de Diputado General será necesario alcanzar el voto de la mayoría absoluta del número legal de procuradores en primera votación y la mayoría simple en la siguiente. A tales efectos no se computarán las abstenciones.

3.- Si celebrada la segunda votación a que se refiere el apartado anterior se produjese empate, será designado Diputado General el candidato del grupo político o coalición que hubiese obtenido un mayor número de votos en las elecciones a Juntas Generales.

4.- A continuación, el Presidente de las Juntas Generales proclamará el nombre del procurador elegido Diputado General,

kargua hartuko du ohiko moduan, Biltzar Nagusietako lehendakariaren aurrean eta ondoko formula esanez: “Juro o prometo defender los Fueros, buenos usos y costumbres de Álava, signo de su autogobierno y de libertad, en aumento de la Justicia”/Zin egin edo hitz ematen dut Arabako Foruen eta ohitura zaharren eta onen alde egingo dudala, burujabetzaren eta askatasunaren ikurra direlako eta justizia handitzearren”.

158. artikulua

Biltzar Nagusiek diputatu nagusia izendatu arte, ezin da gaizerrendan beste gairik sartu, behintzat aparteko eta presako arrazoirik ez badago gairen bat sartzea aholkatzen duena. Mahaiak eta Bozeramaileen Batzarrak erabakiko dute arrazoi horiek ba ote dauden.

II. KAPITULUA.- Foru Aldundiak duen ardura politikoa

1. atala.- Konfiantza-arazoa.

159. artikulua

1.- Diputatu nagusiak Biltzar nagusietan konfiantza-arazoa aurkeztu nahi badu, betiere foru arauekin bat etorriz, Biltzar Nagusietako Mahaian aurkeztutako idazki arrazoitu bidez egingo du eta, horrekin batera, Aldundiko Foru Diputatuen Kontseiluaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.

2.- Mahaiak idazkia izapidetzeko onartu ondoren, lehendakaritzak Bozeramaileen Batzarrari horren berri emango dio eta Osoko Bilkurarako deialdia egingo du.

3.- Eztabaida honako arau hauen arabera burutuko dute:

a) Diputatu nagusiak Osoko Bilkurari azalduko dio, denboramugarik gabe, konfiantza-arazoa, Osoko Bilkurak aintzat hartu beharko duena.

b) Hitzaldia bukatutakoan, Biltzar Nagusietako lehendakariak bilkura etetea erabaki dezake, gehienez hogeita lau orduz. Eten ezean segidan, eta, bestela, etenaldia igarotakoan, biltzarkide talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egingo du gehienez hogeita hamar minutuz.

c) Diputatu nagusiak eta foru-diputatuek nahi adina aldiz hitz egin dezakete. Biltzarkide taldeek behin erantzuteko aukera izango dute, hamar minutuz.

4.- Eztabaida amaitu ondoren, konfiantza-arazoa bozkatuko dute.

5.- Biltzar Nagusien botoen gehiengo soila lortuz gero, konfiantza emanda dago.

6.- Biltzar Nagusiek diputatu nagusiari konfiantza ukatuz gero, diputatu nagusiak dimisioa aurkeztuko du eta beste diputatu nagusi bat aukeratuko dute, Araudi honetako 156. artikuluaren eta hurrengoen eta Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari buruzko Foru Arauaren 26. artikuluaren arabera.

2. atala.- Zentsura-mozioa.

160. artikulua

1.- Biltzar Nagusiek Foru Aldundiari erantzukizun politikoa eska diezaiokete zentsura-mozioa onartuz. Behintzat hamabost biltzarkidek egin beharko dute horren proposamena eta diputatu nagusirako hautagaia eta gobernu-programa bat proposatu beharko dute.

2.- Zentsura-mozioa aurkeztuta, Araudiak eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko du Mahaiak, eta izapidetzeko onartuko du. Zentsura-mozioa aurkeztu dutela jakinaraziko die diputatu nagusiari eta biltzarkide taldeetako bozeramaileei.

3.- Zentsura-mozioa ezingo dute bozkatu aurkeztu duten egunetik bost egun igaro arte.

4.- Epe horretako hasierako bi egunetan, aukerako mozioak aurkez daitezke, zentsura-moziorako aipatutako baldintzak bete beharko dituzte eta horiek onartzeko aipatutako bide berari jarraituko diote.

5.- Zentsura-mozioa eta horien aukerak, halakorik balego, onesteko, Biltzar Nagusietako kideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da.

6.- Gehiengo osoak ez badu zentsura-mozioa onartu, zentsuramozio hori sinatu dutenek ezingo dute beste bat aurkeztu sei hilabete igaro arte.

quien tomará posesión de su cargo en la forma tradicional, ante el Presidente de las Juntas Generales, con la formula: “Juro o prometo defender los Fueros, buenos usos y costumbres de Álava, signo de su autogobierno y de libertad, en aumento de la Justicia”/Zin egin edo hitz ematen dut Arabako Foruen eta ohitura zaharren eta onen alde egingo dudala, burujabetzaren eta askatasunaren ikurra direlako eta justizia handitzearren”.

Artículo 158

Mientras la Cámara no haya designado al Diputado General no se podrán incluir en el orden del día otros asuntos, salvo que lo aconsejaren razones extraordinarias y de urgente necesidad, apreciadas por la Mesa de las Juntas Generales y la Junta de Portavoces.

CAPÍTULO II.- De la responsabilidad política de la Diputación Foral

Sección 1ª.- De la cuestión de confianza.

Artículo 159

1.- Cuando el Diputado General se proponga plantear ante las Juntas Generales la cuestión de confianza, de acuerdo con las normas forales, la presentará en escrito motivado ante la Mesa de las Juntas Generales, acompañada de la correspondiente certificación del Consejo de Diputados.

2.- Admitido el escrito a trámite por la Mesa, la Presidencia dará cuenta del mismo a la Junta de Portavoces y convocará el Pleno.

3.- El debate se desarrollará con sujeción a las siguientes normas:

a) El Diputado General expondrá ante la Cámara, sin limitación de tiempo, la cuestión de confianza que somete a la consideración del Pleno.

b) Finalizada su intervención, el Presidente de las Juntas Generales podrá considerar la interrupción de la sesión durante un plazo no superior a veinticuatro horas. En caso contrario o transcurrido dicho plazo, intervendrá un representante de cada grupo juntero por un tiempo máximo de treinta minutos.

c) El Diputado General y los miembros de la Diputación podrán intervenir tantas veces como lo soliciten. Los grupos junteros tendrán derecho a una réplica de diez minutos.

4.- Concluido el debate, la propuesta de cuestión de confianza será sometida votación.

5.- La confianza se entenderá otorgada cuando obtuviese la mayoría simple de los votos de las Juntas Generales.

6.- Si las Juntas Generales negasen su confianza al Diputado General, éste presentará su dimisión y se procederá al nombramiento de un nuevo Diputado General en la forma prevista en los artículos 156 y siguientes de este Reglamento y en el artículo 26 de la Norma Foral sobre Organización Institucional del Territorio Histórico de Álava.

Sección 2ª.- De la moción de censura.

Artículo 160

1.- Las Juntas Generales podrán exigir la responsabilidad política de la Diputación Foral mediante la adopción de una moción de censura, que deberá ser propuesta, al menos, por quince procuradores y habrá de incluir un candidato a Diputado General y un programa de gobierno.

2.- Presentada una moción de censura, la Mesa, tras comprobar que reúne los requisitos reglamentarios, la admitirá a trámite, dando cuenta de su presentación al Diputado General y a los portavoces de los grupos junteros.

3.- La moción de censura no podrá ser votada hasta que transcurran cinco días desde su presentación.

4.- En los dos primeros días de dicho plazo, podrán presentarse mociones alternativas, que deberán reunir los mismos requisitos y que estarán sujetas a los mismos trámites que las de censura.

5.- La moción de censura y las alternativas, en su caso, requerirán para su aprobación el voto favorable de la mayoría absoluta de los miembros de las Juntas Generales.

6.- Si la moción de censura no fuese aprobada por la mayoría absoluta de los procuradores, sus signatarios no podrán presentar otras hasta transcurridos seis meses.

161. artikulua

1.- Eztabaida hasteko, zentsura-mozioa izenpetu duten biltzarkide batek mozioa defendatuko du, gehienez hirurogei minutuz. Jarraian, mozioan diputatu nagusi izateko proposatutako hautagaiak hitz egin dezake, denbora-muga berarekin, zer programa politiko garatu nahi duen azaltzeko.

2.- Aurreko hitzaldiak bukatutakoan, Biltzar Nagusietako lehendakariak bilkura etetea erabaki dezake, gehienez hogeita lau orduz. Epe hori amaitutakoan, eskatzen duten biltzarkide taldeen ordezkariek hitz egingo dute, gehienez hogeita hamar minutuz. Guztiek izango dute erantzuteko txandarako aukera, hamar minutukoa.

3.- Zentsura-mozio bat baino gehiago aurkeztu badituzte, Biltzar Nagusietako lehendakariak, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda, gai-zerrendan sartu diren mozio guztiak batera eztabaidatzea erabaki dezake, baina bozketa banaka egingo da, aurkeztu diren hurrenkera berean.

4.- Zentsura-mozio bat onartzen bada, aurkeztutako gainerakoak ez dira bozkatuko.

5.- Biltzar Nagusiek zentsura-mozio bat onartzen badute, diputatu nagusiak kargua galduko du, eta mozioan azaldutako hautagaia diputatu nagusi aldarrikatuko da.

162. artikulua

Foru diputatu bati eskumenekoa duen arloaren gaineko ardura eskatu ahal izango zaio zentsura-mozioaren bidez, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketaren Foru Arauak xedatutakoarekin bat etorriz; Araudi honen 160. eta 161. artikuluetan aurreikusitako moduan izapidetuko da, baina ezingo da hautagairik proposatu, ezta aukerako moziorik aurkeztu ere.

III. KAPITULUA.- Politika orokorrari buruzko eztabaida

163. artikulua

1.- Foru Aldundiaren politika orokorrari buruzko eztabaida, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketaren Foru Arauaren 33. artikuluak aipatutakoa, urtero egingo da irailean bilkuren aldia hasterakoan.

Foru Hauteskundeak burutu ondoren, Biltzar Nagusien agintaldi berriaren lehen bilkuren aldian ez da aurreko paragrafoan xedatutakoa egingo.

2.- Diputatu nagusiak idazki bat bidali behar die Biltzar Nagusiei eztabaida baino hirurogeita hamabi ordu lehenago, eta idazkian azaldu behar ditu Foru Aldundiaren iIdo nagusiak Arabako Lurralde Historikoaren egoerari buruz, baita urtean araugintzaren arloan egitea aurreikusten duenari eta hartu nahi dituen neurriei buruz ere.

3.- Eztabaida hasteko, diputatu nagusiak hitz egingo du, gehienez ordu eta erdiz. Ondoren Biltzar Nagusietako lehendakariak bilkura etetea erabaki dezake, gehienez hogeita lau orduz. Eten ezean segidan, eta, bestela, etenaldia igarotakoan, biltzarkide talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egingo du gehienez hogeita hamar minutuz.

4.- Foru Aldundiak biltzarkide taldeen ordezkariei erantzun ahal izango die hizpidera ekarri dituzten gaiei buruz, banaka edo multzoan. Biltzarkide taldeek erantzun dezakete, egoki irizten diotena adierazteko; talde bakoitzak hamar minutu izango ditu horretarako.

5.- Eztabaidan, biltzarkide talde bakoitzak ebazpen proposamen bakarra egin dezake, eztabaidan landutako gaiei buruzkoa izango da eta taldearen azken txandan iragarriko da. Proposamena egin eta aurkeztu ahal izateko, txanda hori amaitutakoan bilkura bertan behera utziko da gutxienez 30 minutuz.

6.- Mahaiaren aurrean aurkeztuko dira ebazpen proposamenak. Mahaiak horiek onartuko ditu eztabaidan landutako gairen batekin lotura baldin badute.

Artículo 161

1.- El debate se iniciará por la defensa de la moción de censura, en un tiempo no superior a sesenta minutos, que efectúe uno de los procuradores firmantes e la misma. A continuación, y por igual espacio de tiempo, podrá intervenir el candidato propuesto en la moción para Diputado General a efectos de exponer el programa político que pretenda desarrollar.

2.- Finalizadas las precedentes intervenciones, el Presidente de las Juntas Generales podrá considerar la interrupción de la sesión durante un plazo no superior a veinticuatro horas. Transcurrido dicho plazo, podrá intervenir un representante de cada uno de los grupos junteros de la Cámara que lo solicite, por tiempo no superior a treinta minutos. Todos los intervinientes tienen derecho a un turno de réplica de diez minutos.

3.- Si se hubiere presentado más de una moción de censura, el Presidente de la Cámara, oídas la Mesa y la Junta de Portavoces, podrá acordar el debate conjunto de todas las incluidas en el orden del día, pero habrán de ser puestas a votación por separado, siguiendo el orden de su presentación.

4.- Si se aprobase una moción de censura no se someterán a votación las restantes que pudiese haberse presentado.

5.- La aprobación de una moción de censura por las Juntas Generales supondrá el cese del Diputado General, y el candidato incluido en aquélla se entenderá proclamado nuevo Diputado General.

Artículo 162

La responsabilidad directa de un Diputado Foral en el área de su competencia se exigirá mediante la adopción de una moción de censura, conforme a lo dispuesto en la Norma Foral de Organización Institucional del Territorio Histórico de Álava, que se tramitará en la forma prevista en los artículos 160 y 161 de este Reglamento, sin que proceda la propuesta de candidato, ni presentación de otra moción alternativa.

CAPÍTULO III.- De los debates de política general

Artículo 163

1.- El debate sobre política general de la Diputación Foral, a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral de Organización Institucional del Territorio Histórico de Álava, se celebrará anualmente al inicio del periodo de sesiones de septiembre.

Lo dispuesto en el párrafo anterior no tendrá lugar en el primer periodo de sesiones del nuevo mandato de las Juntas Generales, tras las elecciones forales correspondientes.

2.- El Diputado General remitirá a las Juntas Generales, con una antelación mínima de setenta y dos horas respecto al comienzo del debate, un escrito conteniendo las líneas fundamentales de la Diputación Foral, respecto a la situación del Territorio Histórico y las medidas y previsiones normativas que se proponga adoptar durante el año.

3.- El debate se iniciará con la intervención del Diputado General por un tiempo no superior a hora y media. A continuación, el Presidente de las Juntas Generales podrá considerar la interrupción de la sesión durante un plazo no superior a veinticuatro horas. En caso contrario, o transcurrido dicho plazo, intervendrá un representante de cada grupo juntero por un tiempo máximo de treinta minutos.

4.- La Diputación Foral podrá contestar a los representantes de los grupos junteros sobre las cuestiones planteadas de forma aislada o conjunta. Los grupos junteros podrán replicar, para hacer las manifestaciones que consideren convenientes, disponiendo cada grupo de diez minutos.

5.- Durante el debate cada grupo juntero podrá proponer una única propuesta de resolución, que versará sobre las materias que hayan sido tratadas en el debate, y se anunciará en el último turno de intervenciones de cada grupo. A fin de poder elaborar y presentar las propuestas se suspenderá la sesión por un tiempo mínimo de 30 minutos al finalizar dicho turno.

6.- Las propuestas de resolución se presentarán ante la Mesa, quien las admitirá si están relacionadas con alguna de las materias tratadas en el debate.

7.- Biltzarkide talde bakoitzak gehien jota hamabost minutu izango ditu bere proposamena aldezteko eta gainontzeko taldeek aurkeztutakoen aurrean zer iritzi duen azaltzeko.

8.- Gutxienez bi bozeramailek eskatzen badute, lehendakariak bilkura eten egingo du aurkeztutako proposamenen arteko testu transakzionalak aurkezteko. Eztabaida eta atsedena, halakorik egin bada, amaitu ondoren, Biltzarretako lehendakariak proposamenak aurkeztu diren hurrenkeran bozkatzeko eskatuko die. Onesten diren ebazpenak Arabako Biltzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

164. artikulua

1.- Halaber, Foru Aldundiaren ekintza politikoari buruzko eztabaida orokorrak ere burutu ahal izango dituzte, Aldundiak hala eskatzen badu eta Mahaiak, Bozeramaileen Batzarrarekin ados, hala erabakitzen badu (hiru biltzarkide talderen edo biltzarkideen herenen ekimenez).

2.- Eztabaida amaitzen denean, hogeita hamar minutuko epea hasiko da eta epe horretan biltzarkide taldeak Mahaiari ebazteko proposamenak aurkeztu ahal izango dizkiote. Mahaiak, eztabaidagai den gaiarekin bat datozenak onartuko ditu, betiere diputatu nagusiarentzako konfiantza-arazoa edo zentsura-mozioa ekartzen ez badute.

3.- Onartutako proposamenak gehien jota hamar minutuz defendatu ahal izango dira. Biltzar Nagusietako lehendakariak aurkako txanda ere eman dezake (iraupen berakoa), proposamen bakoitzaren defentsa amaitu ostean.

4.- Eztabaida amaituta, Biltzarretako lehendakariak bozkatzeko eskatuko die aurkeztu izan diren hurrenkeran.

IV. KAPITULUA.– Interpelazioak eta Galderak

1. atala.- Interpelazioak.

165. artikulua

Biltzarkideek, biltzarkide taldearen bitartez, interpelazioak egin diezazkiekete Foru Aldundiari edo Aldundiko kide bakoitzari.

166. artikulua

1.- Interpelazioak idatziz aurkeztu behar dira Biltzar Nagusietako Mahaiaren aurrean, eta Foru Aldundiaren jokabidearen arrazoiei edo asmoei buruzkoak izango dira, Aldundiaren politika orokorrari dagozkion gai jakin batzuetan edo garrantzia publiko berezia duten gaietan.

2.- Mahaiak egiaztatuko du aurkeztutako idazkiak aurreko ataletako baldintzak betetzen dituela, proposatutako gaiak eta emandako arrazoiak kontuan hartuta. Ez baditu baldintzak betetzen, ezezkoa jakinaraziko zaio ekimena izan duenari, beste era batera proposa dezan, nahi badu.

3.- Forma-akats soilak konpontzea onartuko du Mahaiak, idazkiak arauzko moduan izapidetzea galarazten badute.

167. artikulua

Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartuko dira Osoko Bilkurarako eguna baino gutxienez hamabost egun lehenago aurkeztu diren eta Foru Aldundira bidali diren interpelazioak.

168. artikulua

Interpelazioak Osoko Bilkuran aztertuko dira. Egileak hitz egiteko aukera dauka, gero Foru Aldundiak erantzungo du, eta bakoitzak erantzuteko txanda bana dute ondoren. Lehenengo hitzaldiek gehienez hamar minutu iraungo dute, eta erantzuteko txandek bost.

169. artikulua

1.- Biltzarkide taldeak edo interpelazioaren egileak –bere taldearen bidez– mozioa aurkez dezake eztabaida egitea eta Ganberak jarrera hartzea bultzatzeko, Foru Aldundiak emandako azalpenen eta interpelazioan azaldutako gaien inguruan.

2.- Interpelazioa aztertu duen Osoko Bilkura amaitu eta handik berrogeita zortzi orduen barruan aurkeztu behar da mozioa. Mahaiak begiratuko du mozioaren testuak lotura duen interpelazioaren gaiarekin eta, hala bada, hurrengo Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartuko da. Zuzenketak aurkeztu ahal izango dira osoko bilkuraren aurreko egun baliodunaren 14:00ak arte, larunbatak kanpoan utzita.

7.- Cada grupo juntero dispondrá de un tiempo máximo de quince minutos para defender su propuesta y fijar su posición respecto a las presentadas por los demás grupos.

8.- A solicitud de al menos dos portavoces, el Presidente suspenderá la sesión para que puedan presentarse textos transaccionales entre las propuestas presentadas. Terminado el debate, y en su caso el receso, el Presidente de la Cámara someterá a votación las propuestas por su orden de presentación. Las resoluciones que resulten aprobadas serán publicadas en el Boletín Oficial de las Juntas Generales de Álava.

Artículo 164

1.- Asimismo podrán realizarse debates generales sobre la acción política de la Diputación Foral cuando lo solicitare ésta o lo decidiera la Mesa de acuerdo con la Junta de Portavoces, a iniciativa de tres grupos junteros o de una tercera parte de los procuradores.

2.- Concluido el debate, se abrirá un plazo de treinta minutos en el cual los grupos junteros podrán presentar propuestas de resolución ante la Mesa. La Mesa admitirá las que sean congruentes con la materia objeto del debate y que no significasen cuestión de confianza o moción de censura al Diputado General.

3.- Las propuestas admitidas podrán defenderse durante un tiempo máximo de diez minutos. El Presidente de las Juntas Generales podrá conceder un turno en contra de igual duración después de la defensa de cada uno de ellos.

4.- Terminado el debate, el Presidente de la Cámara las someterá a votación en el orden en que hubieran sido presentadas.

CAPÍTULO IV.- De las Interpelaciones y las Preguntas

Sección 1ª.- De las Interpelaciones.

Artículo 165

Los procuradores, a través de su grupo, podrán formular interpelaciones a la Diputación Foral o a cada uno de sus miembros.

Artículo 166

1.- Las interpelaciones habrán de presentarse por escrito ante la Mesa de las Juntas Generales y versarán sobre los motivos o propósitos de la conducta de la Diputación Foral, en relación con determinados aspectos de su política general o de especial relieve público.

2.- La Mesa constatará que el escrito presentado cumple las condiciones señaladas en el apartado anterior, teniendo en cuenta tanto las cuestiones planteadas como la justificación o motivación que debe acompañarlas. En caso contrario, se notificará el acuerdo denegatorio al autor de la iniciativa para su eventual replanteamiento.

3.- La Mesa aceptará la subsanación de simples defectos formales que, en principio, impidieran la tramitación reglamentaria de los escritos correspondientes.

Artículo 167

Se incluirán en el orden del día del Pleno aquellas interpelaciones que se hayan presentado con una antelación mínima de quince días a su celebración y hayan sido remitidas a la Diputación Foral.

Artículo 168

Las interpelaciones se sustanciarán ante el Pleno, correspondiendo un turno de exposición al interpelante, la contestación de la Diputación Foral y sendos turnos de réplica. Las primeras intervenciones no podrán exceder de diez minutos, ni las de réplica de cinco cada una.

Artículo 169

1.- El grupo juntero o procurador interpelante, éste a través de su grupo juntero, podrá presentar una moción para promover el debate y la toma de postura de la Cámara en relación con las explicaciones proporcionadas por la Diputación Foral referidas a las materias tratadas en la interpelación.

2.- La presentación de la moción se efectuará dentro de las cuarenta y ocho horas siguientes a la finalización del Pleno en que se sustanció la Interpelación de la que trae origen. La Mesa comprobará si el texto de la moción guarda congruencia con la materia de la citada interpelación y, en caso afirmativo, será incluida en el orden del día de la siguiente sesión plenaria, pudiéndose presentar enmiendas hasta las 14 horas del día hábil anterior al Pleno, excluidos los sábados.

3.- Mozioen eztabaida, bozketa eta betetze-kontrola mozio arruntentzat ezarritakoaren arabera egingo da.

2. atala.- Galderak.

170. artikulua

1.- Biltzarkideek galderak egin diezazkiekete Foru Aldundiari edo Aldundiko kide bakoitzari.

2.- Galderak idatziz aurkeztu behar zaizkio Biltzar Nagusien Mahaiari. Horiek, gai, egitate, egoera edo informazio bati buruzkoak izango dira, gai baten inguruan Foru Aldundiak erabakirik hartu duen edo hartuko duen jakiteko edo Foru Aldundiak Biltzar Nagusiei alderdi baten inguruan agiriren edo informaziorik emango dien jakiteko.

3.- Galdera norbere interes hutserako egin bada, ez da onartuko.

4.- Mahaiak idazkia kalifikatuko du eta izapidetzeko onartuko du atal honetan aurreikusitako baldintzak betetzen baditu. Galdera egin duenak besterik adierazi ezean, ulertuko da idatzizko erantzuna nahi duela. Ahozko erantzuna eskatu badu, berriz, erantzuna dagokion batzordean jasoko duela ulertuko da, besterik zehaztu ezean.

171. artikulua

1.- Osoko Bilkuran erantzutea nahi bada, galdera idatziz aurkeztu behar da Erregistro Orokorrean, Osoko Bilkura egiteko egunaren baino lehenagoko hamaikagarren egunaren 15:00ak baino lehenago. Testuan galdera soil eta bakarra agertuko da. Baina gai baten inguruan zenbait galdera erantzutea nahi izanez gero, idazki bakar batean beharreko galderak sar daitezke; Mahaiak galdera horiek gaiarekin lotzen direla egiaztatzeko eskumena du.

2.- Gai-zerrendan sartu ez diren galderak, erretiratu beharko dira hurrengo osoko bilkurarako utzi nahi badira; horrela egiten ez bada, bertan behera gelditu direla ulertuko da.

3.- Galderak Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko dira eta lehentasuna izango dute ondokoek: bilkuren aldi horretan Osoko Bilkurarako galderarik egin ez duten biltzarkideek aurkeztutakoak.

4.- Galderetan galdera bakarra jasoz gero, Osoko Bilkuran honako modu honetara izapidetuko dira: Biltzarkideak Galdera egingo du labur eta Foru Aldundiak erantzungo dio. Ondoren biltzarkideak berriz hitza har dezake erantzuteko edo berriz galdetzeko, eta Foru Aldundiak berriz hitz egin ondoren, eztabaida amaituko da. Lehendakariak hitz egingo dutenen artean banatuko du denbora, baina galdera bat izapidetzeko ez dute inoiz zortzi minutuko tartea gainditukо.

5.- Galdera-idazkiak galdera bat baino gehiago badu, modu honetara egingo da galdera: Biltzarkideak hiru minutuz gehienez ekimena aurkeztuko du labur-labur. Foru Aldundiak bost minutu izango ditu erantzuteko. Ondoren biltzarkideak hitza har dezake zerbait argitzeko edo informazio gehiago eskatzeko, bost minutu izango ditu. Aldundiak berriz hitz egingo du, gehien jota hiru minutuz, eta eztabaida amaituko da.

6.- Lehendakaria arduratuko da ezarritako denborak zorrotz errespetatzeaz. Denbora bukatu ahala txanda hitza duen hurrengoari emango dio, edo hurrengo gaiari ekingo dio.

172. artikulua

1.- Salbuespen moduan eta premia dagoenean, Biltzarretako lehendakaritzak, Bozeramaileen Batzarrarekin ados eta Foru Aldundiaren iritzia entzun ondoren, Osoko Bilkura baten gai-zerrendan sar ditzake Araudiaren 171.1 artikuluan aipatzen den epetik kanpo aurkeztutako galderaren bat; betiere galdera hori bilkura hasteko ordua baino 48 orduz lehenago aurkeztu bada Erregistro Orokorrean.

3.- El debate, votación y control del cumplimiento de estas mociones se realizará de acuerdo con lo establecido para las mociones ordinarias.

Sección 2ª.- De las preguntas.

Artículo 170

1.- Los procuradores podrán formular preguntas a la Diputación Foral o a cada uno de sus miembros.

2.- Las preguntas habrán de presentarse por escrito ante la Mesa de las Juntas Generales. En ellas se formularán interrogantes sobre una materia, un hecho, una situación o una información, sobre si la Diputación Foral ha tomado o va a tomar alguna providencia en relación con algún asunto o sobre si la Diputación Foral va a entregar a las Juntas Generales algún documento o informarle de algún extremo.

3.- No será admitida la Pregunta de exclusivo interés personal de quien la formule.

4.- La Mesa calificará el escrito y admitirá a trámite la pregunta si se corresponde con los requisitos previstos en la presente sección. En defecto de indicación, se entenderá que el preguntante demanda respuesta escrita, y si solicitare respuesta oral sin indicación de órgano, se entenderá que deber tener lugar ante la comisión correspondiente.

Artículo 171

1.- Las preguntas para las que se pretenda respuesta en Pleno deberán presentarse en el Registro General antes de las 15 horas del undécimo día previo al inicio de la sesión en que deban ser tramitadas. El escrito no podrá contener más que la escueta y estricta formulación de un interrogante. No obstante, cuando se pretenda la respuesta de varias cuestiones sobre un mismo asunto podrán acumularse en un mismo escrito los interrogantes necesarios, estando la Mesa facultada para comprobar la coherencia con el tema suscitado.

2.- Las preguntas no incluidas en el orden del día deberán ser reiteradas si se desea su mantenimiento para la sesión plenaria siguiente, en caso contrario se considerarán decaídas.

3.- Las preguntas se incluirán en el orden del día del Pleno dando prioridad a las presentadas por los procuradores que todavía no hubieran formulado preguntas en el Pleno en el mismo periodo de sesiones.

4.- Aquellas preguntas que contengan un solo interrogante tendrán la siguiente tramitación ante el Pleno: tras la escueta formulación de la Pregunta por el procurador, contestará la Diputación Foral. Aquél podrá intervenir a continuación para replicar o repreguntar y, tras la nueva intervención de la Diputación Foral, terminará el debate. Los tiempos se distribuirán por el Presidente entre los intervinientes, sin que en ningún caso la tramitación de una pregunta pueda exceder de ocho minutos.

5.- Cuando los escritos presentados contengan varios interrogantes se sustanciarán de la siguiente manera: por un tiempo máximo de tres minutos el procurador efectuará la escueta presentación de su iniciativa, contestando la Diputación Foral para lo que dispondrá de cinco minutos. A continuación podrá intervenir el procurador para solicitar aclaraciones o ampliación de lo expuesto por término de otros cinco minutos. Intervendrá la Diputación por un tiempo máximo de tres minutos, con lo que concluirá el debate.

6.- La Presidencia velará por el estricto cumplimiento de los tiempos señalados y, una vez concluidos, dará automáticamente la palabra a quien deba intervenir a continuación o pasará al siguiente punto del orden del día.

Artículo 172

1.- Con carácter extraordinario y por razones de urgencia, la Presidencia de la Cámara, de acuerdo con la Junta de Portavoces y oída la Diputación Foral, podrá acordar la inclusión en el orden del día del Pleno de alguna pregunta no presentada con la antelación requerida en el artículo 171.1 del Reglamento, siempre que la misma se haya presentado en el Registro General al menos 48 horas antes de la hora prevista para el inicio de la sesión.

2.- Galdera horiek izapidetzeko onartzeko, idazkian beran premiaren arrazoiak justifikatu beharko dira, eta kalifikatzeko orduan kontuan izango dira zein diren planteatzen den gaiaren ezaugarriak, zein den egiten den garaiaren egoera eta gaurkotasunaren arabera zergatik ezin den gai hori beste Osoko Bilkurako atzeratu.

3.- Premiazko galderak, modu horretara kalifikatuta, lehentasuna izango dute gai-zerrendan diren gaien aurrean.

4.- Ondorio horietarako, 1. atalean adierazitako epean aurkeztutako premiazko galderarik badago, Mahaia eta Bozeramaileen Batzarra bilduko dira bilkura baino lehen eta, Foru Aldundiko ordezkaria han dagoela eta hari entzun ondoren, gai-zerrenda aldatzea eta premiazko galdera horiek sartzea erabaki dezakete.

173. artikulua

1.- Batzordean ahoz erantzutea nahi diren galderak idatziz egin behar dira, eta Foru Aldundiari helarazten zaizkionetik zazpi egun igarotakoan batzordeko gai-zerrendan sartuko dira.

2.- Galdera Foru Aldundiko nori zuzendu, kide hori saileko beste goi kargu batzuekin etor daiteke, nahi duelako edo horrela eskatu diolako galderaren egileak. Galdera izapidetzeko denbora ezingo da 20 minutu baino gehiagokoa izan.

174. artikulua

1.- Idatziz erantzutea nahi diren galderak Mahaiari aurkeztuko zaizkio. Mahaiak izapidetzeko onartuko ditu baldin eta edukiagatik ez badira soilik informazio edo dokumentazio eskera bat; horrela bada, mota horretako ekimen moduan kalifikatuko ditu.

2.- Erantzuna erregistroan jaso behar da, Foru Aldundira galdera bidali eta hogei egunen barruan.

3.- Erantzuteko arauzko epea amaitu bada eta ez bada erantzunik jaso eta Foru Aldundiak atzeratzeko eskaera egin ez badu edo zergatik ezingo duen erantzun esan ez badu, Biltzar Nagusietako lehendakariak Foru Aldundiari gertatukoa azalduko dio eta gai hori automatikoki hurrengo Kontroleko Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko da, ahoz erantzuteko galdera moduan landuko dute eta lehentasuna izango du Kontroleko Osoko Bilkurarako gainontzeko gaien aurrean.

3. atala.- Kontroleko osoko bilkura. Arau orokorrak.

175. artikulua

1.- Bilkuren aldi bakoitzaren hasieran, lehendakaritzak, Mahaiarekin bat etorriz eta Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hilabete bakoitzean egun bat finkatuko du Osoko Bilkura bat egiteko. Osoko bilkura horretan biltzarkideek eta biltzarkide taldeek Foru Aldundiari egiten dizkioten galderak eta interpelazioak landuko dira.

Araudi honetan aurreikusitako tramiteak bete dituzten Galderak eta Interpelazioak baino ezingo dira bilkura horren gai-zerrendan sartu.

2.- Galderen edo Interpelazioen idazkiak Erregistro Orokorrean jasotzen direnean, berehala Foru Aldundiaren Idazkaritza Nagusira bidaliko dira, Idazkaritza Nagusiak horiek ezagutu ditzan; hala ere, Mahaiak horiek kalifikatu beharko ditu.

3.- Osoko Bilkuraren behin betiko gai-zerrendak ezingo ditu 18 gai (presazko galderak, galdera arruntak eta interpelazioak) baino gehiago jaso.

4.- Gai-zerrenda finkatzeko, ondoko lehentasunak izango dira kontuan:

a) Premiazko galderak.

b) Arauzko tramiteak bete dituzten interpelazioak; lehentasuna izango dute bilkuren aldi horretan ondoko kupoa agortu ez duten biltzarkide taldeek: bost biltzarkide edo biltzarkide zatiki bakoitzeko interpelazio bat esleitzekoa. Ezin dira biltzarkide talde bakoitzaren bi interpelazio baino gehiago sartu. Aurrekoa bete behar bada ere, aurkezpenaren lehentasunaren irizpidea aplikatuko da.

2.- Para admitir a trámite estas preguntas deberán justificarse en el escrito e interposición los motivos de la urgencia, que será apreciada en su calificación, teniendo en cuenta las características de la cuestión planteada, las circunstancias del tiempo en que se efectúa y la actualidad que impida pueda tratarse en otro Pleno posterior.

3.- Las preguntas urgentes, una vez calificadas como tales, tendrán prioridad respecto de cualquiera otra que figure en el orden del día.

4.- A estos efectos, siempre que existan preguntas urgentes presentadas con la antelación requerida en el apartado 1, se reunirán la Mesa y la Junta de Portavoces, previamente al inicio de la sesión y, con la presencia del representante de la Diputación Foral y oído éste, podrá acordarse la modificación del orden del día, e incluir tales preguntas urgentes.

Artículo 173

1.- Las preguntas para las cuales se pretenda respuesta oral en comisión, deberán formularse por escrito y se incluirán en el orden del día de la comisión una vez transcurridos siete días desde su traslado a la Diputación Foral.

2.- El miembro de la Diputación Foral a quien se dirija la Pregunta podrá comparecer acompañado, en su caso, por altos cargos del departamento a iniciativa propia o por requerirlo el preguntante, sin que la tramitación total de la Pregunta pueda exceder de veinte minutos.

Artículo 174

1.- Las preguntas para las que se interese respuesta por escrito, se presentarán ante la Mesa de las Juntas Generales, quien las admitirá a trámite siempre que su contenido no implique exclusivamente una solicitud de información o documentación, en cuyo caso las recalificará como iniciativas de este tipo.

2.- La contestación deberá recibirse en el registro dentro de los veinte días siguientes al traslado de la Pregunta a la Diputación Foral.

3.- Transcurrido el plazo reglamentario para la contestación sin que esta se hubiera producido ni la Diputación Foral presentado solicitud de aplazamiento o manifestados los motivos sobre la imposibilidad de una respuesta, el Presidente de las Juntas Generales pondrá tal hecho en conocimiento de la Diputación Foral y el asunto se incluirá automáticamente en el orden del día de la primera sesión de Pleno de Control, donde recibirá el tratamiento de pregunta para respuesta oral, gozando de prioridad sobre las demás iniciativas incluidas en el Pleno de Control.

Sección 3ª.- Plenos de control. Normas comunes.

Artículo 175

1.- Al inicio de cada periodo de sesiones, la Presidencia, de acuerdo con la Mesa y oída la Junta de Portavoces, señalará un día fijo de cada mes para celebrar un Pleno con las preguntas e interpelaciones que se efectúen por los procuradores y grupos junteros a la Diputación Foral.

El orden del día de esta sesión se integrará únicamente con las preguntas e interpelaciones que hayan cumplido los trámites previstos en este Reglamento.

2.- Inmediatamente que se reciban en el Registro General los escritos conteniendo preguntas o interpelaciones se trasladarán por la Secretaría General a la Diputación Foral para su conocimiento, sin perjuicio de su calificación por la Mesa.

3.- El orden del día definitivo del Pleno no podrá contener más de dieciocho asuntos, entre preguntas urgentes, ordinarias e interpelaciones.

4.- Para establecer el orden del día se tendrán en cuenta las siguientes prioridades:

a) Preguntas urgentes.

b) Interpelaciones que hayan cumplido los trámites reglamentarios, dando prioridad a los de aquellos grupos junteros que en el periodo de sesiones no hayan consumido el cupo resultante de asignar una interpelación por cada cinco procuradores o fracción perteneciente al mismo, sin que puedan incluirse más de dos interpelaciones por cada grupo juntero. Sin perjuicio del mencionado criterio, se aplicará el de prioridad en la presentación.

c) Biltzarkideek egindako galdera arruntak; bilkuren aldi horretan oraindik Osoko Bilkurarako galderarik egin ez dutenei emango zaie lehentasuna.

d) Oraindik kuporik gelditzen bada, gainerako galderak sartuko dira aurkeztu diren hurrenkeraren arabera.

5.- Hamazortzi ekimen baino gehiago aurkeztu badira, lehendabiziko aldiz kanpoan utziko dira aurreko zenbakiko b) atalean adierazitako kupoa agortu duten taldeen interpelazioak eta, beharrezkoa balitz, ondoren bilkuren aldi horretan galdera gehien aurkeztu dituzten biltzarkideen galderak utziko dira kanpoan. Azkenik, Erregistro Orokorrean aurkeztu diren hurrenkeraren araberako irizpidea erabiliko da.

176. artikulua

Bilkuren aldi bat amaituta, erantzuteke dauden interpelazioak eta galderak, bilkuren aldien artean idatziz erantzun beharreko galdera moduan izapidetuko dira, ondoko kasuan izan ezik: ekimena sinatu duenak Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez ekimen horren izaera berresten badu bilkuren aldia amaitu eta hurrengo hamar egunen barruan.

177. artikulua

1.- Biltzarretako Mahaiak, gai-zerrendan sartu diren eta gai baten ingurukoak edo lotura duten gaien ingurukoak diren interpelazioak edo galderak metatzeko eta batera eztabaida dezaten agintzeko eskumena du.

2.- Mahaiak, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda, adieraz dezake ezin direla interpelazio eta galdera jakin batzuk izapidetzeko onartu bilkuren aldi berean bideratutako beste interpelazio edo galdera bat errepikatzen dutelako.

178. artikulua

Aldundiak, Mahaiari zuzendutako jakinarazpen arrazoituren bidez, edozein unetan eta galdera bakoitzarengatik behin bakarrik, hurrengo osoko bilkurako gai-zerrendarako uzteko eska dezake. Ekimena, eskumena duen organoak egingo duen hurrengo bilkurarako utziko dute, idatziz erantzuteko galderen kasuan izan ezik; kasu horretan, erantzuteko epea beste hamar egunez luzatuko da.

VIII. TITULUA.- MOZIOAK, ALDUNDIAREN KOMUNIKAZIOAK, ERAKUNDE ADIERAZPENAK, INFORMATZEKO BILKURAK ETA AGERRALDIAK

I. KAPITULUA.- Mozioak

179. artikulua

1.- Edozein biltzarkide taldek Osoko Bilkuran edo Batzordean eztabaidatzeko mozioak aurkez ditzake ondoko helburu hauekin:

a) Foru Aldundiak bere eskumenekoak diren gaiei buruzko proposamenak bidal diezazkien Biltzar Nagusiei.

b) Gai jakin bati buruz Biltzar Nagusiek eztabaidatu dezaten eta horren inguruko iritzia eman dezaten.

2.- Mozioak Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez aurkeztu behar dira. Mahaiak mozioa onartzea edo ez erabakiko du eta, onartzen badu, argitaratzeko eta dagokion Osoko Bilkuran edo batzordean izapidetzeko aginduko du, betiere mozioaren xede den gaiaren garrantzia kontuan izanik.

3.- Mozioa Biltzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, zazpi eguneko epea irekiko da biltzarkide taldeek zuzenketak aurkez ditzaten.

4.- Mozioen gainean ondoko zuzenketa hauek egin daitezke:

a) Aldatzeko edo kentzekoa: Mozioaren testu osoa beste modu batera idaztea proposatzen badu edo paragrafo edo testu bat ordezkatzea edo kentzea proposatzen badu.

b) Gehitzekoa: Ekimen nagusian testu edo paragrafo bat sartzea proposatzen badu.

180. artikulua

1.- Zuzenketak aurkezteko epea amaituta, mozioa Osoko Bilkuraren edo batzordearen gai-zerrendan sartuko da; kontuan izan behar

c) Preguntas ordinarias formuladas por los procuradores, dándose prioridad a las formuladas por quienes no hubieran realizado aún preguntas para Pleno en el mismo periodo de sesiones.

d) Si todavía hubiera cupo suficiente se incluirán las demás preguntas por su orden de presentación.

5.- En el supuesto de que el número de iniciativas presentadas superase los dieciocho asuntos se excluirán, en primer lugar, las interpelaciones de los grupos que hubieran cubierto el cupo señalado en el apartado b) del número anterior y, si fuera necesario, posteriormente las preguntas de los procuradores que hubieran presentado más número en el periodo de sesiones, acudiendo en último extremo al criterio del orden de presentación en el Registro General.

Artículo 176

Finalizado un periodo de sesiones, las interpelaciones y preguntas pendientes serán tramitadas como preguntas a responder por escrito en el periodo entre sesiones, salvo que el firmante de la iniciativa ratifique su carácter mediante escrito dirigido a la Mesa dentro de los diez días siguientes a la conclusión del periodo de sesiones.

Artículo 177

1.- La Mesa de la Cámara está facultada para acumular y ordenar que se debatan conjuntamente las interpelaciones o las preguntas incluidas en el orden del día, relativas al mismo tema o temas conexos.

2.- La Mesa, oída la Junta de Portavoces, podrá declarar no admisibles a trámite aquellas interpelaciones o preguntas que pudieran ser reiterativas respecto de otras interpelaciones o preguntas tramitadas en el mismo periodo de sesiones.

Artículo 178

La Diputación podrá solicitar, mediante comunicación motivada dirigida a la Mesa, en cualquier momento y por una sola vez respecto de cada pregunta, que sea pospuesta para el orden del día de la siguiente sesión plenaria. La iniciativa se diferirá a la siguiente sesión que celebre el órgano competente, salvo las preguntas para respuesta escrita, cuyo plazo de respuesta se prolongará por otros diez días.

TÍTULO VIII.- DE LAS MOCIONES, COMUNICACIONES DE LA DIPUTACIÓN FORAL, DECLARACIONES INSTITUCIONALES, SESIONES INFORMATIVAS Y COMPARECENCIAS

CAPÍTULO I.- De las mociones

Artículo 179

1.- Cualquier grupo juntero puede presentar mociones para su debate en Pleno o Comisión con alguna de las siguientes finalidades:

a) Que la Diputación Foral remita a las Juntas Generales una propuesta sobre alguna de las materias que sean de su competencia.

b) Que las Juntas Generales deliberen y se pronuncien sobre un determinado asunto.

2.- Las mociones deberán presentarse por escrito dirigido a la Mesa, que decidirá sobre su admisibilidad y ordenará, en su caso, la publicación y tramitación ante el Pleno o la comisión competente, en función de la importancia del tema objeto de la moción.

3.- Publicada en el Boletín Oficial de las Juntas Generales la moción, se abrirá un plazo de siete días en el que los grupos junteros podrán presentar sus enmiendas.

4.- Las enmiendas a las mociones podrán ser:

a) De modificación o supresión: Cuando se presente una redacción alternativa completa del texto de la moción o se pretenda la sustitución o supresión de un párrafo o texto.

b) De adición: Cuando se pretenda la inclusión de un texto o párrafo dentro de la iniciativa principal.

Artículo 180

1.- Finalizado el plazo de enmiendas, la moción será incluida en el orden del día del Pleno o de la comisión, teniendo en cuenta que

da bilkura bakoitzean biltzarkide talde beraren bi mozio baino ezin direla sartu.

2.- Gai-zerrendan sartutako mozioa eztabaidatuko dute; ekimena proposatu duen taldeak azalpena egin ondoren (hamar minutuz gehien jota), zuzenketak aurkeztu dituzten taldeek hitz egingo dute, bakoitzak beste hamar minutu izango ditu eta, ondoren, zuzenketarik aurkeztu ez duten eta hitza eskatu duten taldeek hitz egingo dute bost minutuz gehienez. Amaitzeko, erantzuteko txanda egin daiteke, biltzarkide talde bakoitzak bost minutu izango ditu.

3.- Hitzaldi guztiak amaituta, bozketa ondoko modu honetara egingo da:

a) Hasteko, mozioa proposatu duen taldeak onartu ez dituen gehitze zuzenketak bozkatuko dituzte. Onartuz gero, hasierako ekimenera gehituko dira.

b) Ondoren mozioa, mozioaren egileak onartutako zuzenketak eta onetsitako gehitze zuzenketak barne, bozkatuko dute. Testua onartuz gero, ordezkatze edo kentze zuzenketak bertan behera utziko dira.

c) Mozioa ez bada onartzen, ordezkatze edo kentze zuzenketak bozkatuko dituzte, gutxienetik handienera, proposatu dituzten biltzarkide taldeek duten kide kopuruaren arabera. Bat onartuz gero, gainerakoak bertan behera utziko dira.

4.- Zuzenketak aurkeztu dituzten taldeek eta mozioa aurkeztu duenak testu transakzional bat aurkez dezakete Osoko Bilkurak edo batzordeak onar dezan. Hori egiten bada, bertan behera utziko dira transakzionala egin duten taldeek egindako zuzenketak.

5.- Mozioa puntuka edo paragrafoka bozkatzeko —hori egitea posible balitz—, mozioaren egilearen onarpena beharko da, eta puntu edo paragrafo horietako bat edo batzuk onartzen badira eta beste batzuk ez, bozkatzeke dauden zuzenketak bertan behera utziko dira.

6.- Batzordeko edo Biltzarretako lehendakariak gai baten inguruko edo lotura duten gaien inguruko mozioak meta ditzake eztabaidatzeko.

181. artikulua

Proposamena egin duen taldeak eskatuta, Mahaiak presazkotzat jotzen dituen mozioak, hurrengo Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartuko dira. Zuzenketak aurkezteko epea bileraren aurreko egun baliodunean amaituko da (14:00etan); larunbata ez da egun balioduntzat hartuko honetarako.

182. artikulua

1.- Mozioa izapidetzeko onartuta, eta bidean den bitartean, ezingo da xede bera duen beste moziorik izapidetu, hasierako mozioa proposatu duenak ekimenen metaketa onartzen ez badu.

2.- Mahaiak, Bozeramaileen Batzarraren iritzia entzunda, adieraz dezake ezin direla mozio jakin batzuk izapidetzeko onartu bilkuren aldi berean bideratutako beste mozio bat errepikatzen dutelako.

183. artikulua

Onetsitako mozioek urteko zenbaki korrelatiboa izango dute eta Araudi honek xedatutako arauekin bat etorriz kontrolatuko da horiek betetzen diren edo ez.

184. artikulua

Onetsitako mozioak Arabako Lurralde Historikoaren eta Biltzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta, kasua balitz, Biltzar Nagusietako lehendakariak berehala horien berri emango dio Foru Aldundiari edo dagokion organo edo entitateari.

II. KAPITULUA.- Erakunde adierazpenak

185. artikulua

Erakunde-adierazpen bat onar dezake Bozeramaileen Batzarrak aho batez, herritarren interes orokorrari edo pertsonen oinarrizko eskubideen defentsari eta babesari eragiten dion gai bati buruz. Biltzarkide talde batek edo lehendakaritzak egingo du horien proposamena. Biltzarkide taldeak Biltzarretako lehendakariaren aurrean aurkeztu behar du proposamena. Lehendakaria batzarkide talde guztiekin harremanetan jarriko da, eta adostutako proposamena aurkeztuko du Bozeramaileen Batzarraren aurrean. Adierazpen horiek Biltzar Nagusietako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

sólo se podrán tramitar en cada sesión dos mociones presentadas por el mismo grupo juntero.

2.- La moción inserta en el orden del día será objeto de debate, en el que tras la exposición del grupo proponente, por un tiempo máximo de diez minutos, intervendrán durante diez minutos cada uno los grupos que hubieran presentado enmiendas y, a continuación, aquellos que no lo hubieran hecho y lo solicitaren, por un tiempo máximo de cinco minutos. Cabrá finalmente un turno de réplica de cinco minutos por grupo juntero.

3.- Una vez concluidas todas las intervenciones la votación se efectuará del siguiente modo:

a) En primer lugar se procederá a la votación de las enmiendas de adición no aceptadas por el grupo proponente de la moción. Si se aprueban se incorporarán a la iniciativa principal.

b) Posteriormente, se procederá a la votación de la moción junto con las enmiendas que haya aceptado el proponente y las de adición ya aprobadas. Si se aprueba el texto, decaerán las enmiendas de sustitución o supresión.

c) Si la moción resulta rechazada, se procederá a la votación de las enmiendas de sustitución o supresión por orden de menor a mayor, en función del número de miembros del grupo juntero que las haya propuesto. De aprobarse una de ellas, decaerán las demás.

4.- Los grupos enmendantes y el proponente de la moción podrán presentar un texto transaccional para su aprobación por el Pleno o la comisión. Esto conllevará el decaimiento de las enmiendas que se hayan podido presentar por los grupos que transen.

5.- En caso de que ello fuera posible, la votación de la moción por puntos o párrafos requerirá la aceptación por parte del autor de ésta, y de aprobarse alguno o algunos de éstos y no otros producirá el decaimiento de las enmiendas que queden por votar.

6.- El Presidente de la comisión o de la Cámara podrá acumular a efectos de debate las mociones relativas a un mismo tema o temas conexos entre sí.

Artículo 181

Las mociones que, a instancia del grupo proponente, fueran calificadas por la Mesa de urgente tramitación, serán incluidas en el orden del día del siguiente Pleno. El plazo para la presentación de enmiendas concluirá a las 14 horas del día hábil anterior a la celebración de la sesión, no considerándose a estos efectos día hábil el sábado.

Artículo 182

1.- Una vez admitida a trámite una moción, y mientras esté en curso, no podrá tramitarse otra u otras sobre el mismo objeto, salvo que el proponente de la moción inicial acepte la acumulación de iniciativas.

2.- La Mesa, oída la Junta de Portavoces, podrá declarar no admisibles a trámite aquellas mociones que pudieran ser reiterativas respecto de otras tramitadas durante el mismo periodo de sesiones.

Artículo 183

Las mociones aprobadas tendrán una numeración anual correlativa y el control de su cumplimiento se efectuará conforme a las normas establecidas en el presente Reglamento.

Artículo 184

Las mociones aprobadas se publicarán en el BOTHA y en el de las Juntas Generales y, en su caso, el Presidente de las Juntas Generales dará inmediata cuenta de las mismas a la Diputación Foral o al órgano o entidad correspondiente.

CAPÍTULO II.- De las declaraciones institucionales

Artículo 185

Cuando se trate de materias con afectación general a los intereses de los ciudadanos o a la defensa y protección de los derechos fundamentales de las personas, la Junta de Portavoces podrá aprobar por unanimidad declaraciones institucionales a propuesta de un grupo juntero o de la Presidencia. La propuesta formulada por un grupo juntero será presentada ante la Presidencia de la Cámara quien, tras contactar con todos los grupos, presentará una propuesta consensuada ante la Junta de Portavoces. Estas declaraciones se publicarán en el Boletín Oficial de las Juntas Generales.

III. KAPITULUA.- Foru Aldundiaren komunikazioak

186. artikulua

Foru Aldundiak egin dituen komunikazioei buruz Batzordean edo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, honako prozedura hau jarraitu beharko da:

a) Foru Aldundiak Biltzar Nagusiei Osoko Bilkuran edo Batzordean eztabaidatzeko bidali dien komunikazioa jaso ondoren, banatu eta baten edo bestearen gai-zerrendan sartuko da.

b) Komunikazioa eztabaidagai den bileraren hasieran, diputatu nagusiak edo hitz egiteko izendatutako foru diputatuak komunikazio hori azalduko du. Amaitutakoan, Biltzar Nagusietako lehendakariak edo, kasua balitz, dagokion batzordeko lehendakariak, erabakiko du bilera gutxienez ordubetez etetea, biltzarkide taldeetako bozeramaileek aho batez aurkakoa erabakitzen ez badute. Ondoren, azalpenak eskatu, galderak egin edo beste oharren bat burutu nahi duten biltzarkide taldeen ordezkariei emango die hitza lehendakariak. Biltzarkide talde bakoitzak hogei minutu izango ditu, eta epe horretan taldeko prokuradore batek edo gehiagok parte har dezake.

c) Foru Aldundiak adierazitako edozein gai erantzun dezake banaka, batera edo gaiaren arabera taldekatuz.

d) Biltzarkide taldeek erantzun dezakete, egoki irizten diotena adierazteko. Biltzarkide taldeak hamar minutu izango ditu horretarako.

e) Aurreko paragrafoetan aipatutako eztabaida amaituta, hogeita hamar minutuko epea irekiko da eta epe horretan, eztabaidan parte hartu duten Biltzar Nagusietako edo, kasua balitz, batzordeko kideek eztabaidatutako gaien inguruko mozioak aurkez ditzakete lehendakaritzaren aurrean.

f) Gehienez hamar minutu dituzte mozio bakoitzaren alde egiteko. Aldeko txanda bakoitzaren ostean, lehendakariak aurkako txanda emango du, iraupen berekoa.

g) Mozioak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera eztabaidatu eta bozkatuko dira. Transakzionalak badira, erretiratu diren mozioetatik azkena noiz aurkeztu zuten izango da kontuan.

h) Mozio bat bozkatu eta onetsi ondoren, gainerakoak ere bozkatu ahal izango dituzte, betiere Osoko Bilkuraren edo batzordeko lehendakariaren ustez onartutakoarekin bateragarri badira eta horren aurkakoak ez badira.

IV KAPITULUA.- Foru diputatuek batzordeetan egiten dituzten informatzeko bilkurak

187. artikulua

1.- Foru diputatuek, eurek eskatuta, Biltzar Nagusietako Mahaiak erabakitzen duen batzordearen aurrean agerraldia egin dezakete, eskumenekoak dituzten jarduerei buruz informatzeko bilkura burutzeko.

2.- Informatzeko bilkura horietara foru diputatuak Foru Aldundiko goi kargudun batzuekin joan daitezke; hasieran foru diputatuak azalpena egingo du. Azalpena amaituta, biltzarkide talderen edo biltzarkideren bat eskatzen badu, lehendakariak bilkura epe batez eten dezake, kideek jasotako informazioa azter dezaten. Bilkurarekin berriz hasitakoan, biltzarkide taldeek eta biltzarkideek galderak burutu, argibideak eskatu edo oharrak egin ditzakete. Talde bakoitzak gehienez hamar minutu izango ditu horretarako. Foru diputatuak edo berekin diren goi kargudunek erantzungo dute, banan-banan edo guztiak batera.

V. KAPITULUA.- Agerraldiak

188. artikulua

1.- Foru diputatuak batzordeetan agertzeko eska dezakete biltzarkide taldeek, haien Sailen eskumeneko gaiei buruz (alderdi jakin batzuen inguruan edo orokorrean) informa dezaten.

CAPÍTULO III.- De las Comunicaciones de la Diputación Foral

Artículo 186

Los debates en Comisión o Pleno sobre comunicaciones de la Diputación Foral se ajustarán al siguiente procedimiento:

a) Recibida la comunicación que la Diputación Foral envíe a las Juntas Generales para su debate en Pleno o Comisión, se distribuirá y se incluirá en el orden del día de uno u otra.

b) La sesión en que haya de debatirse la comunicación comenzará con una ampliación de la misma por parte del Diputado General o Diputado Foral designado para intervenir. Concluida esta intervención el Presidente de las Juntas Generales o, en su caso, el de la comisión de que se trate, determinará la suspensión del acto, por un tiempo mínimo de una hora, salvo acuerdo unánime en otro sentido de los portavoces de los grupos junteros. Acto seguido la Presidencia concederá la palabra a los representantes de los grupos junteros que deseen solicitar aclaraciones, plantear preguntas o manifestar cualquier otro tipo de consideración. Cada grupo juntero dispondrá de veinte minutos, pudiendo hacer uso de la palabra durante ese espacio de tiempo uno o varios procuradores miembros del mismo.

c) La Diputación Foral podrá contestar a cualquiera de las cuestiones formuladas de forma aislada, conjunta o agrupada por razón de la materia.

d) Los grupos junteros podrán replicar para hacer las manifestaciones que consideren convenientes. A estos efectos, cada grupo juntero dispondrá de diez minutos.

e) Terminado el debate a que se refieren los párrafos anteriores, se abrirá un plazo de treinta minutos durante el cual los miembros de las Juntas Generales o, en su caso, de la comisión en que se haya producido el debate podrán presentar ante la Presidencia correspondiente mociones sobre la materia objeto de discusión.

f) Cada moción podrá ser defendida en el tiempo máximo de diez minutos. A continuación de cada turno a favor, el Presidente concederá uno en contra por el mismo espacio de tiempo.

g) Las mociones se debatirán y votarán según el orden de presentación. En el caso de que tengan carácter transaccional, se considerará como momento de presentación el de la última de las mociones retiradas.

h) Sometida a votación y aprobada una moción, las restantes sólo podrán ser votadas en cuanto sean conciliables y no contradictorias con aquélla, a juicio de la Presidencia del Pleno o de la comisión.

CAPITULO IV.- De las sesiones informativas de los Diputados Forales en las comisiones

Artículo 187

1.- A petición propia, los Diputados Forales podrán comparecer, ante la comisión que determine la Mesa de las Juntas Generales, al objeto de celebrar una sesión informativa sobre las actividades de su competencia.

2.- Las sesiones informativas, a las que los Diputados Forales podrán asistir acompañados de los altos cargos de la Diputación Foral, se iniciarán con una exposición del Diputado Foral. Concluida ésta, si algún grupo juntero o procurador lo solicitase, el Presidente suspenderá temporalmente la sesión, con el objeto de que la información pueda ser analizada por sus miembros. Reanudada la sesión, los grupos junteros y los procuradores podrán formular preguntas, solicitar aclaraciones o hacer observaciones por un tiempo máximo de diez minutos por grupo. Responderá el Diputado Foral o los altos cargos que le acompañen, bien de forma individualizada, bien de forma conjunta.

CAPÍTULO V.- De las comparecencias

Artículo 188

1.- Los grupos junteros podrán solicitar la comparecencia de los Diputados Forales ante las comisiones para informar sobre un extremo concreto o bien con generalidad, sobre alguna materia de la competencia de sus departamentos.

2.- Mahaiak, dagokion Batzorderako eta batzordearen aurrean egin beharreko agerraldi eskaeratzat hartu du, betiere sail horren eskumeneko gai bati buruz orokorrean galdetzen bada.

3.- Gaiaren hasieran, egileak edo bere biltzarkide taldeko kide batek eskaera azalduko du. Ondoren, batzordeak agerraldiari buruz egokia jotzen duena erabakiko du. Agerraldia onartzen bada, diputatu foralak egokia iruditzen zaiona azalduko du. Horretarako ez du 20 minutuko tartea gainditukо. Azalpena amaitu ondoren, biltzar taldeentzako txanda bat hasiko da, txikienetik handienera; hamar minutu gainditukо ez duen epea izango dute azalpenak eskatzeko edo oharrak egiteko. Agerraldia burutzen duenak horiei erantzungo die ondoren egingo den eztabaidan. Talde bereko kideek hitz egin dezakete bata bestea ordezkatuta, baina ezingo dute taldeari guztira eman dioten denbora gainditu.

4.- Biltzarkide taldeek foru diputatu ez diren beste agintari batzuei, funtzionarioei edo zenbait pertsona edo talderi dagokien batzordean agerraldia burutzeko eskaera egin ahal diete. Batzordeak agerraldia burutzea erabakitzen badu, 56. artikuluan xedatutakoa beteko da.

5.- Mahaiak idazkia soilik kalifikatuko du eta dagokion batzordera bidaliko du, betiere agerraldiaren zioa Arabako Lurralde Historikoan eragina duten edo Lurraldearekin berehalako lotura zuzena duten gaien ingurukoa bada.

6.- Batzordeak eskaera adostuko du, egokia bada, eta zehatz finkatuko du zein den xedea eta zein diren jaso nahi den informazioaren mugak.

